



GANADORES DEL II CONCURSO DE MICRORRELATOS DE ADONA ADONAre II. MIKRO-KONTAKETA LEHIAKETA IRABAZLEAK



GANADORES DEL II CONCURSO DE MICRORRELATOS DE ADONA ADONAre II. MIKRO-KONTAKETA LEHIAKETA IRABAZLEAK

CARA BONITA

Autora: Conchi URDANIZ RUIZ

Premio al mejor relato en Castellano

Yo doy la cara, porque no soy un caradura, porque no pongo mala cara, porque al mal tiempo pongo buena cara, porque no me gustan los que tienen caraslargas, porque no me escondo de caravinagre, porque tu eliges cara o cruz, porque a veces hay que estar cara arriba y otras cara abajo, porque no tengo más cara que espalda, porque nunca te rompan la cara, porque tu cara sea una sonrisa, porque nadie se ria en tu cara, porque tu cara reciba muchos besos, porque soy donante por mi cara bonita, por todo y por nada doy la cara.

0047 EMAN AURPEGIA

Egile: Fernando REY ESCALERA

Premio al mejor relato en Euskera

18 urte beteta, Iñakik proposamen bitxia egin zigun kuadrillakooi: odol-emaile egitea. Eta hari kasu egin, eta odol-bankura joan ginen, analisiak-eta egitera, eta medikuaren galdetegiari erantzutera. Deus berezirik ez. Ez nuen ulertu egun hartan, dena dela, zergatik jarri zuen amak harridura-aurpegia, batik bat bera eta aita ere odol-emaileak izan baitziren hepatitisagatik ematen jarraitzeko biderik izan ez zuten arte. Zurturik zegoen ama, akaso, faltsu samarra nintzelako eta odol-tanta ttikiena ikusita kontua galtzen nuelako? "Ez zekiat. Ez nauk nerabetan bezain ahula. Gainera, adiskideekin batera egiten diren gauzek xarma berezia ditek" pentsatu nuen neure artean. "Eta on egiten zioz norbaiti gure odolak. Eta, azken batean, "gerturik daukagu odola" hainbestetan kantatu eta gero, garaia duk noizbait ere zinez besteen alde zerbait egiteko". Eta itzuli nintzen handik astebetera, analisiak ongi egonik odola emateko atea irekita neukalako. Gaur balitz bezalaxe dut gogoan 1980ko ekainaren hogeit hura, nire bizitzako ustekaberik handiena izan bainuen, zeren, diot, zergatik hitz egin behar zuen hango erizain mingain-luzeak? Nork eman zion eskubidea niri deus esateko, nire bizitzan sartzeko? Odola eman aurretik, hemoglobina aski ba ote dugun jakitearren orratz batekin behatz-mamian zitzada egin bidenabar, erizainak esan baitzidan: "Gaur zure gurasoen odol-taldea ikusi, eta zurearekin bat ez datorrela ohartu naiz. Adoptatua, ezta? Oi! Barkatu. Jakinen zenuen noski!" Baietz esan nion, nahiz eta instant hartan, kolpean, gorritik zurira mudatu zitzaidan aurpegia. Bihotza pilpiraka hasi, eta zonzbien modura eseri nintzen odola ateratzeko etzaulkian. Ez nintzen sekula ausartu gurasoei deus esatera. Gaur, 30 urte iraganik, ume lapurtuen berria adituta, berriz sentitu dut ikara hura.